

Hizkera burokratikoaz, itzulpenaz eta beste

Euskara eta herri administrazioa gai hartuta aritu ziren hizketan Patxi Baztarrika EAElko Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Anjel Lertxundi idazlea, HAEE-IVAPen 25. urteurrena dela-eta. Lehen a elebitasun pasiboaren balioaz aritu zen eta bigarrenak hizkera burokratikoaren koska ilunak aipatu zituen.

ORDUBETEKO hitzaldi bana egin zuten Baztarrikak eta Lertxundik *Berrikuntza eta euskara herri administrazioetan* izenburupeko jardunaldietan, hilaren 8an, Donostian. Bi saioen entresaka bildu dugu hona.

Baztarrikak orokorrean —herri administrazioa mugatu gabe— elebitasun pasiboaren balioaz jabetu behar dugula adierazi zuen. Belaunaldi batzuetan ez omen dugu lortuko elebitasun simetrikoa eta elebitasun asimetrikoko horretan elebitasun pasiboari aitormen soziala egin behar zaiola azpimarratu zuen. Elebitasun pasiboarekin bi gauza lor ditzakegu, haren esanetan: batetik, euskaldunak euskaraz aritzeko aukera izango du —elebidun pasiboak euskaraz hitz egin ez, baina ulertzen duelako— eta bestetik, erdalduna euskaldunaren mundura gerturatuko dugu. Jauzi egin eta herri administrazioaren esparrura jo zuen Baztarrikak. Elebitasun asimetrikokoaren testuinguru horretan itzulpengintzaz hitz egin nahi izan zuen. Esan zuenez gero eta zentzu gutxiago du herri administrazioan material guztia bi hizkuntzatan sistematikoki egiteak. Ia beti gaztelaniz dago jatorrizko testua eta ondo-

DANI BLANCO



Anjel Lertxundi eta Patxi Baztarrika.

I. K. / ARGAZKI PRESS



ren dator euskarazko itzulpena. Euskaraz mende dela aitortu zuen Baztarrikak. Zer egin bi hizkuntzei berdintasun estatusa emateko? Zehaztapen handiak egin ez bazituen ere, sailburuordearen ustez euskaraz zein gaztelaniz beren espazioak izan beharko lituzkete, eta beste zenbaite-tan biak batera joango lirake. Ez da sistematikoki dena itzultzearen baliagarritasuna zalantzan jartzen den lehen aldia. Administrazioa langileek beraiek adierazi izan dute gaztelaniz euskaraz sistematikoki itzultzea alferrikako lana dela, eta era berean, beti euskara galtzaile dela.

Nola adierazi herritarrei ura moztuko dutela?

Alegia, edozein udalek zein hizkeraren bidez adieraziko die herritarrei ur moztetaren berria? Anjel Lertxundi hizkera burokratikoaren izurriteaz aritu zen. Politikoei eta burokratek erabiltzen duten hizkera da hizkera burokratiko. Honako ezaugarriak dituela esan zuen Lertxundik: artifiziala, anbigua, abstraktua, laua, kolore bakarrekia, zurrina... Hizkera horrek administrazioarako balio zuela aitortu zuen Lertxundik nahiz eta batzuetan gehiegikeriak egiten diren. Beraz, hizkera burokratiko bai, baina jakineko egoeretan, ez edozertarako eta edozein tokitan. Horregatik aipatu zuen izurrite hitza, bere ustez, administrazioetik jauzi egin eta bestelako esparruak bete dituelako. Hedabideen adibidea jarri zuen. Hedabideek bere egin omen dute hizkera burokratiko eta gainera bozgorailu funtzioa bete.

Ur moztetaren adibidera itzuliz, alkatearen eta herritarren arteko dialogo irudikatu zuen Lertxundik. Alegia, alkateak asmatu beharko duela hizkerarik proposena herritarrei esateko ura moztuko dutela. ■

Babeslea: Bergarako Udala

